



2016KO MARTXOAREN 10EKO BILKURAKO AKTA

Organoa: Abaltzisketako Osoko Bilkura.

Lekua: Abaltzisketan

Ordua: 19: 00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bildutakoak: Jon Zubizarreta. Alkatea
Aritz Garmendia. Zinegotzia
Felix Maioz. Zinegotzia
Adur Gorostidi. Zinegotzia
Jose Maria Egunez. Zinegotzia
Mikel Semperena. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

1. 2016-01-19ko Bilkurako akta onartzea, hala balegokio.
2. Alkateak emandakoa ebazpenak jakinaraztea: 2016-01etik 2016-29 bitarteko ebazpenak, biak barne.
3. J.J. A.E., Sasiain barrena berreraikitzeke baimena onartzea.
4. San Juan jaietan ohe elastikoak eta ahate harrapatzeke kioskoa jartzeko baimen eskaera aztertu eta dagokiona erabaki.
5. Guraso Elkartearen dirulaguntza eskaeraren inguruan dagokiona erabakitzea.
6. A. A. podologo lanetarako, eskaeraren inguruan dagokiona erabakitzea.
7. Eudelen proposamena, udal langileen soldataren ingurukoan dagokiona erabakitzea.
8. Abaltzisketako Udalaren administrazio elektronikoaren zenbait alderdi arautzen dituen ordenantzaren haserako onarpena ematea.



ABALTZISKETA

9. Beheko lokalaren erabilera baimenaren erabakia Alkateak onartua jakinaraztea.
10. Arandi baserriaren erreteila egiteko baimena onartzea.
11. Ejido saileko larre ordenantzari hasierako onarpena ematea.
12. Ataria komunikabideari 2016 urterako 500,00 euroko ekarpena onartzea eta hitzarmena sinatzeko Alkatea baimentzea.
13. Otsaileko ordainketen zerrenda onartzea.
14. Norberak lekarkeenak.

1- 2016-01-19KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA, HALA BALEGOKIO.

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2016-01-19ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurtzeari ekiten zaio. Bertan, hitzez hitz irakurtzen ez bada ere, izenburuak komentatu eta laburtzen dira. Mahaikideen aldetik aurkakorik esan ez denez, dagoen bezala onartutzat eman da.

2- ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK JAKINARAZTEA: 2016-01ETIK 2016-29 BITARTEKO EBAZPENAK, BIAK BARNE.

- 2016/01: Abenduko aste kulturalen ordainketak.
- 2016/02: Udala eta Tolomendi arteko IKT inguruko hitzarmena onartzea.
- 2016/03/04/05/06/07/08/09/10/11/13/14/15/16/17/18/19/20: Hirilurren balio gehikuntzaren itzulerak onartzea.
- 2016/21: Ikullu Razing elkartearen eskaera , rallyesprinterra onartzea
- 2016/22: Kultur etxeko gela erabiltzeko baimena onartzea.
- 2016/23: Luis Olanoren lizentzi eskaera.
- 2016/24: Iñaki Gorostidiren lizentzi eskaera.
- 2016/25: Jose Antonio Artolaren lizentzi eskaera.
- 2016/26: 2016/01 fakturen zerrenda onartzea.
- 2016/27: Luis Olanoren lizentzi eskaera.
- 2016/28: Trakzio mekanikozko ibilgailuen errolda onartzea.
- 2016/29: Ñañarriko erdi sotoa erabiltzeko baimena.



ABALTZISKETA

Alkatearen ebazpenak mahai gainean agertu dira eta guztiek jakinaren gainean geratu dira.

3- J.J. A. E., SASIAIN BARRENA BERRERAIKITZEKO BAIMENA ONARTZEA

Gai honen inguruan zenbait proposamen mahairatu dira baina azkenik, aurkeztutako proiektua baino lan gehiago egin direla baimenik gabe eta hauen legalizazio proiektua eskatzea erabaki da. Eta bitartean inolako erabakirik ez hartzea.

4- SAN JUAN JAIETAN OHE ELASTIKOAK ETA AHATE HARRAPATZEKO KIOSKOA JARTZEKO BAIMEN ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Miguel Fernandez Eduardo Jaunak, San Juan jaietan ohe elastikoak eta ahateak harrapatzeko instalakuntza bat jarri nahi duela adieraziz baimena eskaera luzatzen du.

Kontutan hartuaz, Abaltzisketako plazan leku asko ez dela geratzen.

Kontutan hartuaz, herriko beste eragile batzuek ere beraien jarduerak egiteko lekua eskatzen dutela.

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

Miguel Fernandez Eduardo Jaunak luzatutako eskaera ez onartzea eta eskatzaileari erabakiaren berri ematea.



ABALTZISKETA

5- GURASO ELKARTEAREN DIRULAGUNTZA ESKAERAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA.

Abaltzisketako Txalburu eskolako guraso elkarteak 2015/2016 ikasturtean zehar burutu eta burutzen ari den ekintzen inguruko laguntza eskaera luzatu duela jakitera eman da.

Guraso elkarteak aurkeztu dituen ekintzak honako hauek dira:

• Igeriketa ikastaroa	957,35
• Ikastarorako garraioa	1.455,00
• Topic era autobusa	145,00
• Topic eko sarrera.....	300,00
• Izotz jauregira	130,50
• Izotz jauregiko garraioa	180,00
• Lekaroz egonaldia	280,00
• Zinera autobusa	190,00
• Zarautzeko egonaldia	711,00
• Zarautzera autobusa.....	160,00
• Zuhaitz parkea	180,01

Guztira 4.688,86€

Ekintzen berri eman eta mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Txalburu eskolako guraso elkarteari iaz bezala, 1.500,00 eurotako laguntza ematea.
2. Erabakiaren berri eskatzaileari ematea.



ABALTZISKETA

6- A. A. PODOLOGO LANETARAKO, ESKAERAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA.

Udal honetan, A.A.T. Andreak podologo zerbitzuak eskaintzeko aukera proposatu duela jakitera eman da.

Abaltzisketako udaleko kultur etxean, behe solairuko lokalean ileapaindegi eta Fisioterapia zerbitzuak eskaintzen diren lokalean podologia zerbitzua eskaintzeko aukera izatea egokia dela esaten da.

Zerbitzu hauek lokal berdinean eskaintzeko aukera ikusten denez, eskaera luzatu duenari zera jakinaraztea erabaki da:

- Abaltzisketako kultur etxean zerbitzua eskaintzeko aukera duela jakinaraztea.
- Eta horrela erabakitzen badu, Udalak herrian deia zabaltzeko prest dagoela.

7- EUDELEN PROPOSAMENA, UDAL LANGILEEN SOLDATAREN INGURUKOAN DAGOKIONA ERABAKITZEA.

Alkateak jakinarazten du, Eudelen aldetik honako zirkularra jaso duela eta bertan hitzez hitz ondorengoa esaten dela:

ERABAKITZEKO PROPOSAMENA

1.- 2015ean %0,6ko FUNTSA ZUZKITZEA MODERNIZAZIORAKO ETA

Ekitaldi honetan ahalegin berezia egin denez eta konpromiso publikoak bete direnez, neurri batean aurre egin ahal izan zaio langile publikoek azken ekitaldiotan galdutako erosketa-ahalmenari. Hori dela eta, **2015ean** oinarrizko ordainsarien eta ordainsari osagarrien soldata-masaren **%0,6ko funtsa zuzkitu**



ABALTZISKETA

beharko litzateke, zerbitzugintza publikoa modernizatzeko eta arrazionalizatzeko eta erakundearen produktibitatea hobetzeko. Hartara, ekitaldi honetan bertan betearazi liteke, ahal dela; edo aurrekontuaren arabera halakorik egiterik dagoenean, besterik adierazi ezean, 2016 urtearen barruan saiatuz.

2.- LANGILE PUBLIKOEN 2012ko APARTEKO ORDAINSARI GEHIGARRIA BERRESKURATZEA

2015ean, 2012ko aparteko ordainsaria ordaindu beharko litzateke %50,27ko ehunekoetan (%24,04+%26,23ren baliokidea), abenduaren 26ko 36/2014 Legean eta irailaren 11ko 10/2015 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa kontuan hartuta, hurrenez hurren.

Halaber, **2016an eta, aurrekontuaren arabera, ahalik eta lasterren, 2012ko aparteko ordainsariaren 91 egunei dagokien eta berreskuratu gabe dagoen gainerako kopurua (%49,73ren baliokidea) ordaindu beharko litzateke,** 2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 48/2015 Legean zehaztutako aukera kontuan hartuta.

3.- 2016ko EKITALDIAN ORDAINSARIA %1 GEHITZEA

2016ko ekitaldirako, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak %1 gehitu beharko lirateke 2015eko abenduaren 31n indarrean daudenen aldean. Horrela, erkaketako bi epealdietarako homogeneousotasuna lortuko litzateke langileen kopuruari eta antzinasunari begira, 2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean zehaztutako aukera kontuan hartuta.

4.- EUDELI JAKINARAZTEA

Erabakitzen da organo eskudunak gomendio hau betetzeko hartutako erabakiari buruzko jakinarazpena EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarteari bidaltzea.

Proposamenaren berri izanik. Mahaikideek erabaki dute:

- 1- Proposamenaren lehen eta hirugarren puntua onartzea eta 2016ko urtarrilaren 1eko efektuarekin.



ABALTZISKETA

2- Proposamenaren 2 puntuak jasotzen dena, Abaltzisketako udalak bere langileei inolako zorrik ez diola, eta dekretuan ezarri zen helburuetarako ordainketa egin zela.

3- Erabakiaren berri Eudeli jakinaraztea.

8- ABALTZISKETAKO UDALAREN ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN HASERAKO ONARPENA EMATEA .

Abaltzisketako Udalak administrazio elektronikoaren erabilera arautzeko udal ordenantza eratu du onarpena emateko.

Ordenantzari onarpena emateko jarraitu beharreko urratsak hauek dira:

- Ordenantzari haserako onarpena ematea.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea hilabeteko epean.
- Jendaurreko epea iragan eta alegaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta eman daiteke, onarpen berria eman beharrik gabe.
- Eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen denetik indarrean hasten da.

Mahaikideek aho batez ERABAKI DUTE:

Bat- Abaltzisketako udalaren administrazio elektronikoaren zenbait alderdi arautzen duen ordenantzari haserako onarpen ematea.

Bi- Hilabeteko epealdian jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emanez.

Hiru- Jendaurreko denboraldian alegaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta emango da, onarpen berrik eman gabe.



ABALTZISKETA

Lau- Ordenantzaren behin betiko argitalpena egitea, jendaurreko epea iragan ostean.

9- BEHEKO LOKALAREN ERABILERA BAIMENAREN ERABAKIA ALKATEAK ONARTUA JAKINARAZTEA

GAIA:BEHEKO LOKALEAN DENDA JARTZEA

Jon Zubizarreta Aldaya, Abaltzisketako Udaleko Alkateak, legez dagozkidan eskumenak egikarituz,

Beheko kaleko lokala erabiltzeko lizentzia emateko ireki den espedientea ikusita, hurrengo datuak dituen:

- 1- Interesduna: Argitxu Zabala Zeberio
- 2- NAN/AIZ: 44158150J
- 3- Eskaera-data: 2015-04-23
- 4- Sarrera-erregistroa: 2015-04-23
- 5- Erabiltzeko lizentzia zein ondasunari begira eskatzen den: Beheko kaleko lokala .
- 6- Ondasunaren erabilera zein jarduerarako eskatzen den: Denda anitza: janaria, edaria, tresnak)

Abaltzisketako Udalak, beheko kalean eraiki berria den lokalaren jabetza du. Lokal hau, gaur egun oraindik, udal ondasunen inbentarioan jasotzeke aurkitzen de berria delako, eta inbentarioa eguneratzeke dagoela.

Lokalaren exekuzioa eta bere egokitze lanak, Jaurlearitzako landa garapeneko egitasmoen bidez finantziatuak izan dira eta beti ere bertan jarduera ekonomikoak sortzeko aukera herritarrei eskaintzeko helburuarekin.

Abaltzisketako udalak , bertan jarduera ekonomikoa sustatzeko politika jarraituaz, lokalaren eskaintza eginez, deialdi publiko ireki eta edonork parte hartzeko eskubidearekin egin zuen, 2015eko apirilaren 16ean.

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.net. E-maila: abaltzisketa@udal.gipuzkoa.net



ABALTZISKETA

Interesa agertzeko epea 2015eko apirilaren 24ean amaitu zen eta interesa agertu zuena herritar bat zian zen, bertan denda zerbitzua (janaria, edaria, tresneria, ...) eskaintzeko asmoarekin.

Eta Idazkariaren txostena ikusita

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- ARGITXU ZABALA ZEBERIO ANDREARI beheko lokala erabiltzeko udal lizentzia ematea.

Baimendutako erabilera, ondoko baldintzen menpe egongo da:

- 1- Lokalaren erabilera denda anitza (janaria, eraria, tresneria ...) izatea du helburu, eta eskaintza herritarrei zuzentzea.
- 2- Baimena zein araubide lotzen zaion: idazkariaren txostenean esan bezala, lokala erabiltzeko lizentzia izango du, eta epea lau urtekoa izango da.
- 3- Eman beharreko bermea: bermerik utzi beharrik ez da izango.
- 4- Zaintza eta mantentze gastuak, zergak, tasak eta gainerako tributuak ordaintzeko, baita ondasuna, bere izaeraren arabera erabiltzeko eta jaso den egoera berean emateko beharra ere bere gain hartzea.
- 5- Ondasunaren erabilerak edo horretan gauzatuko den jarduerak eskatu beste lizentzia eta baimen bere kontura lortzeko betebeharra bere gain hartzea.
- 6- Okupaziotik ondorioztatutako erantzukizuna hartzea, hala denean, dagokion aseguru-poliza, banku-abala edo beste berme nahikoa gauzatzeko beharra aipatuta.
- 7- Aldebakarreko ezeztatzea onartzea, baina gutxieez hiru hilabete aurrez bata besteari jakinaraztea.
- 8- Erakunde lagatzaileak baimenaren objektu den ondasuna ikuskatzeko ahalmena beretzat gordetzea, ondasuna baimenaren aldeetan ezarritakoaren arabera erabiltzen dela bermatzeko.
- 9- Subrogazio epea eta araubidea. Horrek, edozein kasutan, alde aurreko baimena eskatu behar du, baimena eskuetan duenak.

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.net. E-maila: abaltzisketa@udal.gipuzkoa.net



ABALTZISKETA

10- Iraungitze-arrazoiak 1.- baimen honetan ezarritako baldintzak betetzen ez direnean .

BIGARRENA.- Hileko ordainsaria ,baimena ematen denetik hasita lehen urte betean dohain, eta handik aurrera 100,00 € hileko onartzea, eta Zerga-Ordenantzan agindutakoaren arabera, argia, ura, zaborra eta telekomunikazio gastuak bere gain izatea.

HIRUGARRENA.- Interesdunari jakinaraztea, okupazioaren ondoriozko erantzukizuna bere gain hartuko duela, eta gainontzekoei eragin diezaiekeen kalteak eztaiko dituen aseguru-poliza gauzatu beharko duela.

LAUGARRENA.- Lehen esan bezala , erantzukizun zibileko aseguroa egiteko arduraz gain , barneko edukiaren aseguro poliza egitea. Eraikinaren ate eta leihoen aseguroa udalaren gain izango da.

BOSGARRENA.- Baimenaren eranskinean udalaren jabetzako ondasunen zerrenda eransten da .

Interesdunari Ebazpen hau jakinaraztea, TAOALeko 52.2.artikuluak eta AJAPOko 109.artikuluak ezarritakoari jarraituz, erabaki honek administrazio bidea agortzen duela adieraziz. (AJAPOren 89.3. artikuluak)

Haren kontra jarri daiteke, lehendabizi eta aukerabidez, birjartze errekurtsua, edo zuzenean aurka egin dakioke administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean , TAOALeko 52.1. artikuluaren eta AJAPOko 116.artikuluaren arabera.

Birjartze errekurtsua jarriko balitz, egintza administratiboa eman duen organo beraren aurrean jarri beharko litzateke, horren berri izan eta biharamunetik hilabeteko epean. Jartze horrek, administrazioarekiko auzien jurisdikziora jotzea eragotziko du, harik eta berariazko ebazpena edo isilbidezko gaitzespena izan arte, AJAPOko 116. eta 117. artikuluek xedatu bezala.

Errekurtsua ebatziko eta jakinaraziko da hilabeteko epean. Osterantzean, gaitzetsia izan dela ulertuko da eta administrazioarekiko auzibidea irekiko da.

Zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua jarriko balitz, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian egingo da, bi hilabeteko epean, edo aurkaratu den xedapena argitaratu eta biharamunetik hasita, edo administrazio bidea agortzen duen erabakiaren jakinarazpena, berariazkoa balitz, nahiz argitaratzea izan eta biharamunetik hasita. Hori guztia,



ABALTZISKETA

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1. eta 46. artikuluekin bat etorriz.

Nolanahi ere, interesdunek, haien eskubideak babesteko egoki deritzoten bestelako akzio edo errekurso ere egikari dezakete.

SEIGARRENA.- Udalbatzari, Ebazpen honen berri ematea, gauzatuko duen hurrengo bileran.

Abaltzisketan, 2016ko otsailaren 25ean

Alkateak

Idazkariak.

UDALAREN JABETZAKO ONDASUNAK

.-ERAIKINA

.-ERAIKINAREN BI ATE ETA LEHIOAK ETA MARKOAK

.-ELEKTRIZITATE INSTALAZIOA ETA TETXUAN DAUDEN ARGI LANRAPA EDO ANTZEKOAK

.-KOMONETAKO MOBILIARIOA INSTALAZIO ETA ATEAK

.-MOSTRADOREKO DESAGUE TUBOA

.-MOSTRADORE MOBILIARIO OSOA

Abaltzisketan, 2016ko otsailaren 25ean.

Mahaikideek , proposamena ontzat eman dute .

10- ARANDI BASERRIAREN ERRETEILA EGITEKO BAIMENA ONARTZEA.

Arandi baserrian erreteila egiteko Seguritate eta Osasun oinarrizkoa estudioa aurkeztu dute eta aldi berean obra burutzeko baimena eskatzen dute. Osasun eta seguritate azterketa honetan esaten da, baserriaren erreteila egin nahi dela eta honen aurrekontua 17.350,00 eurotako dela.



ABALTZISKETA

Aurkeztutako dokumentazioa nahikoa izanik, aho batez **ERABAKI DUTE:**

- 1- Arandi baserrian erreteila egiteko baimena onartzea.
- 2- Udal Agintarauen arabera, aurrekontuaren %1a udalari ordaintzea, hau da 173,50 euro, Obra eta eraikuntza zerga kontzeptuan .
- 3- Eta eskatzaileari erabakiaren berri ematea.

11- EJIDO SAILEKO LARRE ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA

Abaltzisketako Alkateak, Abaltzisketako Udalean zegoen ordenantza zaharkitua zegoela eta bertan 7/2006 Foru Arauan jasotzen diren egokitzapenak burutzeko asmoarekin zenbait aldaketa proposatu ditu.

Proposamenak aztertu eta mahaikideek alde agertu direnez, Abaltzisketako Ejido mendiko larratze ordenantza era honetara jasotzen da:

Abaltzisketako Udalaren onura publikoko 2.000.1 ZK. mendian, Ejido izenekoan, larratzeak arautzeko Ordenantza.

Azken urte hauetan, Abaltzisketako Udalak eta Gipuzkoako Foru Diputazioak Ejidon larreak hobetu eta ustiatzen eduki duten esperientzia ona izan denez, orain beharrezko dela uste dugu larratze horiek baimentzeko mekanismoak eta erabiltzeko erak ordenantza baten bidez arautzea.

Horregatik, Abaltzisketako Udalak bere mendiak antolatu eta ustiatzeko duen eskumenaren indarrez, Baso Administrazioak emandako arauak betez, ekainaren 13ko 1.372/1986 Errege Dekretuak onartutako Udalen Ondasunen Erregelamenduko 39, 42 eta 101. artikuluetan ezarri bezala,

XEDATZEN DUT

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.net. E-maila: abaltzisketa@udal.gipuzkoa.net



ABALTZISKETA

I TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Zera da ordenantza honen xedea Gipuzkoako lurralde historikoko Onura Publikoko Mendien Katalogoko 2.000.1 zk. mendian, Ejido izenekoan, larreak ustiatzeko arauak ematea.

Larratzea, mendi horrek izan ditzakeen ustiapenetako bat, mendia zaindu eta hobetzearekin bat datorren eran egin behar da, urriaren 20ean emandako Gipuzkoako Mendien 7/2006 Foru Arauari, indarrean dagoen Abaltzisketako Onura Publikoko Zelaiak Antolatzeko Planari eta, batez ere, Larreak Ustiatzeko Urteko Planetan ezarritakoari jarraituz, arau Foralaren 58 artikulua 2 puntuan arautzen duena betez.

2. artikulua.

Larratze gaitan Abaltzisketako Udalak eman ditzakeen baimenak bertako herritarren edo udal barrutian dauden nekazaritzako ustialeku edo finken titularren ganaduarentzat izango dira batez ere, behi, zaldi, ardi eta ahuntz espezieetakoak izan eta umedun edo umerik gabeko abere emeak edota azienda berritzeko abereak badira.

Zentzu horretan, larratzeko orduan lehentasuna izango dute artikulua honen aurreko paragrafoan ezarritakoa betez, Ejidoko auzo larreak, antolamendu baten barruan, ustiatzen ibili ziren titularren aziendek.

3. artikulua.

Abaltzisketako Udalak, larreak ustiatzeko Urteko Planen bidez, zehatz ditzake zeintzuk diren larreratzeko tokiak eta denborak eta, era berean, espezieka larra dezaketan kantitatea ere. Ezarri eta arautu ditzake, era berean, aldi baterako edo iraunkorki aziendentzat sartzea debekatuta egongo diren larre tokiak, eta «hobetuztat» hartzen diren larre tokietarako baldintza espezifikoak jarri ere.

II TITULUA

LARRATZEA BAIMENTZEKO BALDINTZAK

4. artikulua.

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.net. E-maila: abaltzisketa@udal.gipuzkoa.net



ABALTZISKETA

Ordenantza honek hartzen duen eremuan, oro har, larratzeko baimena eman daiteke behi, ardi, zaldi eta ahuntz azientak dituzten abaltzainek ordenantzan dauden baldintza objektibo eta subjektiboak bete eta jarriko diren ustiatzeko kuotak ordaintzen badituzte.

5. artikulua.

Auzo larreak ustiatzeko udal baimena eska dezakete 1. tituluko 2. artikulua barruan egon eta zerga eta auzo betebeharretan eguneratuta badaude, pertsona fisiko eta nekazal izaerako elkarteak.

6. artikulua.

Larratze erregimenean eduki nahi den azientak behar bezala identifikatuta eta Nekazaritza Ustialekuen Erregistroan izena emanda egon behar du eta, saneamenduari eta abereen mugimenduari buruz dagoen arautegia betetzeaz gain, Gipuzkoako lurralde historikoan, eta udalerrri mailan udal agintariek ezar ditzaketen, derrigorrez betebeharreko guztiak bete beharko ditu.

7. artikulua.

Arau Foralaren 59 artikulua ezarritakoa jarraituz, ahuntzak larretzeko debekua beteko da beti ere, hauek inolako kudeaketa planik gabe larrera eramaten badira. Aldiz, kudeaketa plana egiten bada, ahuntzen jabeek larrera eramateko eskumena izango dute.

8. artikulua.

Abaltzisketako Udalak emandako larratzeko baimenetik kanpo geratzen dira zehatz-mehatz, eskaera aurkezteko egunean, eskaera egin duen pertsona fisiko edo entitate juridikoaren izenean ez dagoenean azienta inskribatuta Ustialekuen Erroldan.

Baimenetik kanpo geratzen da, era berean, merkatura doan pasadizoko azienta.

9. artikulua.

Ordenantza honek aipatzen dituen baimenak erreboka daitezke, emateko bete behar ziren baldintzak ez badira bete, alde batera utzi gabe zigorrak ere ezar daitezkeela, horrela bada.

III TITULUA

BAIMENTZEKO PROZEDURA

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.net. E-maila: abaltzisketa@udal.gipuzkoa.net



ABALTZISKETA

10. artikulua.

Ordenantza honek aipatzen dituen larratzeko eskaerak larratu aurreko urteko urriaren 15-a baino lehen egin behar dira Udal Errgistroan eta eskaeretan adierazi behar da, espezien arabera, zenbat buru larratu nahi den. Eskaera orriarekin batera abere bakoitzaren jabearen eta identitatearen ziurtagiri egiaztagarriak aurkeztu behar dira eta eskatzen diren osasun betebeharrak betetzen direla ere egiaztatu.

Horiez gain, larratzeko baimena emateko beharrezko derizkion datu osagarriak eska ditzake Udalak.

11. artikulua.

Eskaerak, egin beharreko kontsiderazio, erregulazio eta/edo mugegetekin batera, Larreak Ustiatzeko Urteko Planean sartu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi Zuzendaritzara bidali behar dira, onar ditzan.

Tramite hori bete ondoren, eskaera bakoitzaren behin-behineko ebazpena jakinaraziko die Udalak eskatzaileei. Eskaera hori behin betikoa izango da eskatzaileak ezarrita dauden udal tasak, baimendutako abereen kopuruari bakarrik dagozkionak, ordaintzen dituenean.

12. artikulua.

Larreak preferenteki herriko abeltzaintzat izango dira. Udalak antola ditzake ustiapen horiek ondoko irizpide hauei jarraituz:

1. Larreratzeko baimenak, hasiera batean, I. tituluko 2. artikuluaaren barruan egon eta Ejidoko larreak, eraldatu eta hobetzeko lanen hasieratik, antolamendu baten barruan, ustiapen ibili direnei emango zaizkie.

2. Baimen horiek beste ustiapen batzuekin bat etorriko lirakeenean, larratzeko baimena eman daiteke Abaltzisketako auzotarrei edota udalerriko ustialeku edo etxaldeen jabeei aurreko apartaduan ez badaude sartuta.

3. Mendiaren baliabide naturalak gutxitzeko arriskurik gabe, oraindik beste larratze batzuk ere baimentzeko aukera badago, larratzeko baimena eman dezake Udalak Abaltzisketan bizi ez arren eskaera egin duten abeltzainei.

Udalak eman ditzake baimenak denbora, espazio edo abelburu kopuruari begiratuta. Aurreko apartaduetako edozeinen barruan, gertatzen bada larre eskaerek mendiaren ustiapen normala gainditu egiten dutela, Udalak abelburuen kopuruaren arabera eman ditzake baimenak.



ABALTZISKETA

13. artikulua.

Abaltzisketako Udalak emandako larratzeko baimenak urtebeterako izango dira, hau da, eskaera aurkeztutako egunaren ondoko urte natural osorako. Baimena ematen den kasuetan zigilu edo identifikatzeko udal adierazle batez markatu behar dira abereak.

14. artikulua.

Egin behar duten ustiapenaren ordain gisa, lur horietan eduki behar duten abelburuko (edo artaldeko) abeltzainen ordaindu behar dituzten gutxieneko kuotak jarriko ditu Udalak.

Hasiera batean Udalak jarriko dituen kuotak larre horiek zaintzeak (ustiatzearen ondorioz) ekarriko dituen gastuak ordaintzeko izango dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.

Ordenantza honetan aurreikusitakoa urratuz gero, zigortzeko ahalmena Gipuzkoako lurralde historikoko Baso Administrazioari dagokio, Mendien Foru Arauean ezarritakoari jarraituz.

Bigarrena.

Ordenantza honetan eta Larreak Ustiatzeko Urteko Planetan erabakitakoa hobeto betetzeko, Abaltzisketako Abeltzainen Batzordea edo Elkarteak oniritzia emango du herriko udalarekin batera..

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau bere behin betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean sartuko da indarrean.

Abaltzisketa, 2016eko martxoaren 7ean .—Jon Zubizarreta Aldaia . Alkateak.

Mahaikideek aho batez ERABAKI DUTE:



ABALTZISKETA

Bat- Abaltzisketako Udalaren onura publikoko 2.000.1 ZK. mendian, Ejido izenekoan, larratzeak arautzeko Ordenantzari haserako onarpen ematea.

Bi- Hilabeteko epealdian jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emanaz.

Hiru- Jendaurreko denboraldian alegaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta emango da, onarpen berrik eman gabe.

Lau- Ordenantzaren behin betiko argitalpena egitea, jendaurreko epea iragan oste

12- ATARIA KOMUNIKABIDEARI 2016 URTERAKO 500,00 EUROKO EKARPENA ONARTZEA ETA HITZARMENA SINATZEKO ALKATEA BAIMENTZEA.

Tolosaldeko komunikabidea den Ataria egunkariaren ordezkariarekin Alkatea bildu dela eta, komunikabidea laguntzeko proposamena luzatu ziola jakitera ematen du.

Komunikabidearen ordezkariak egindako proposamenak aztertu eta azkenik, mahaikide guztien adostasunarekin ERABAKI DA:

- 1- 1.-2016 urtean Abaltzisketako Udalak, Ataria komunikabideari 500,00 eurotako laguntza ematea.
- 2- Eta erabakiaren berri ordezkariari jakinaraztea.

13- OTSAILEKO ORDAINKETEN ZERRENDA ONARTZEA.

Abaltzisketako kontabilitatean, 2 zenbakia duen faktura zerrenda mahairatu da, 4.176,35 eurotako, onarpena emateko.



ABALTZISKETA

Zerrenda honetan agertzen ziren interesatuek ikusi ostean , dagoen bezala onartutzat eman da.

14- NORBERAK LEKARKEENAK

BAT.- JOSU ZUBIZARRETAREN OBRA AMAIERA .-

Idazkariak jakitera ematen du, 2016ko martxoaren 7ko datarekin, Josu Zubizarreta Aldaia Jaunak, bere etxean egindako handipena obra amaiera aurkeztu duela udal erregistroan. Eta honekin batera, egindako handipena lehen erabilera baimena eskatzen du.

Kontutan hartuz, Abaltzisketako Udalak, 2015eko maiatzaren 19ko Osoko Bilkuran hartutako erabakia jarraituaz, handipena burutu duela.

Kontutan hartuaz, baimena onartzerakoan, txosten teknikorik ez zegoela eta orain ere txosten teknikorik ez dagoela.

Kontutan hartuaz, obra amaiera proiektua eta Osoko Bilkuran onartutakoa bat datozela.

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

- 1- Josu Zubizarretaren obra amaiera eta lehen erabilera baimena onartzea.
- 2- Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.

BI.-NAÑARRI ERAIKINAREN ERABERRITZE ETA EGOKITZE LANETARAKO PROIEKTUAREN ERREDAKZIORAKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA .

Alkateak jakinarazten du , Aldundiak Lurraldearen oreka programaren barruan eta Jaurlearitzak Erein programaren barruan laguntzak emateko deialdia udaberri aldera izan daitekeela eta horretarako Nañarri eraikinaren eraberritze

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.net. E-maila: abaltzisketa@udal.gipuzkoa.net



ABALTZISKETA

eta egokitzapen lanak finantziatzeko laguntza eskaera luzatzeko erredakzioa egitea ezinbestekoa dela. Horregatik , proiektuaren erredakzioa eta obra amaiera arte esleipena egiteko baldintzak onartzea proposatzen du . Oinarrizko proiektua erredaktatzea beharrezkoa izango da , baina beste dokumentuak beti ere aipatutako erakundeek laguntzak onartu eta udalarentzat bideragarria den heinean aurrera eramango direla ere ziurtatu nahi da .
Jarraian jasotzen da baldintza plegua :

Administrazio-klausula berezien agiria ÑAÑARRIREN ERABERRITZE ETA EGOKITZE LANETARAKO PROIEKTUA ERREDAKTATZEA .

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Ñañarri eraikinaren eraberritze eta egokitze lanen erredakzio egitea , bertan hotela, aterpea eta jatetxea erabilera emateko .Horretarako ondorengo dokumentu hauen aurrekontuak eskatzen dira :

- .-Oinarrizko proiektua
- .-Exekuzio proiektua
- .-Instalazioen proiektua
- .-Arkitektoaren obra zuzendaritza
- .-Aparejadorearen exekuzio zuzendaritza
- .-Instalazioen legalizazio eta obra amaiera
- .-Osasun eta segurtasun koordinazioa

Kontratu hau osotasunean burutzea , Gipuzkoako Aldundia eta Jaurilaritzako Landa garapena sailaren laguntzaren menpe dago . Oinarrizko proiektuaren erredakzioa ezinbestekoa da laguntza eskatu ahal izateko . Aldiz , beste dokumentuak , laguntza jasotzearen menpe geratzen dira , eta laguntzaren zenbatekoa ere udalarentzat bideragarria izan behar du , aurrera jarraitzeko .

2. KONTRATAZIO ORGANOA

2.1. Kontratazio-organoa, udalaren izenean jardungo duena, plenoa da.



ABALTZISKETA

3. ARAUBIDE JURIDIKOIA

Agiri hau kontratazio baterako oinarria da, eta kontratazioak administrazio-izaera du; horrenbestez, bi alderdiak geratzen dira arau hauek xedatzen dutenaren menpe: SPKLTBk; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, aurrekoak ezartzen duenaren aurkakoa ez bada; eta administrazio-klausula berezien agiri honetan bildu diren klausulek.

Orobat, arau hauek ere aplikatuko dira: maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, SPKL zati batean garatzen baitu; Estatuko administrazio-kontratazioa arautzen duten gainerako xedapenak; eta Euskadiko autonomia-erkidegoak bere eskumenen barruan ematen dituenak.

4. KONTRATATZEKO GAITASUNA

4.1. Administrazioarekin pertsona naturalek edo juridikoek kontrata dezakete, espainiarrak zein atzerritarrak, baldin eta, jarduteko gaitasun osoa izanda, SPKLTBko 60. artikuluan aurrez ikusten diren inguruabarretatik bat ere ez badute.

Europar Erkidegoko estatu kideetako enpresek, espainiarrak ez direnek, jarduteko gaitasuna egiaztatu behar dute SPKLTBko 72.2. artikuluan xedatu denaren arabera.

Enpresak pertsona fisikoak edo juridikoak izan behar dira, eta beren helburuek edo jarduerak kontratuaren xedearekin zuzeneko lotura izan behar dute – estatutu edo eratze-arauetatik hala ondorioztatuko da–; gainera, antolaketan, kontratua ondo betetzeko bitarteko pertsonal eta material nahiko izan behar dute.

4.2. Aipatu betekizunoz gain, interesdunek sailkapen egokia egiaztatu behar dute, agiri honen 5. klausulan agintzen denarekin bat etorriz.

Edozelan ere, Europar Erkidegoko estatu kideetako enpresek, espainiarrak ez direnek, ez dute zertan sailkapen hori izan; hori bai, kaudimen teknikoak, ekonomikoak eta finantzarioak egiaztatuko dute, SPKLTBko 75. eta 78. artikuluen babespean, jarraian aipatzen diren zuribideetatik:



ABALTZISKETA

4.3. Enpresa batek ezin du lizitazioan parte hartu baldin eta kontratuaren zehaztapen teknikoak prestatzen parte hartu badu, betiere parte-hartzeak lehia askeari mugak jarri ahal badizkio edo tratu abantailatsua ekar badiezaioke gainerako enpresa lizitatzailaiegi begira.

4.4. Administrazioarekin kontratatzen dutenek norberaren izenean egin dezakete edo ordezkari bidez, horretarako ahalorde egokia duten pertsonen bidez.

Interesdunek Idazkaritza Nagusiari eskatu behar diote, eta lortu ere, ekarri nahi dituzten agirien askiespenari buruzko berariazko egintza formala, lizitazioan parte hartzeko beren ordezkari bidez egiaztagiriak aurkeztu aurretik.

Zernahi gisaz, salbuespenez, ordezkari bidez egiaztagiriak kalifika daitezke Kontratazio Mahaiaren bileran; hala bada, aktan berariaz adieraziko da ekarritako agiriak aski ote diren, espediente zehatz honekin lotuta, ordezkariak lizitazioan parte-hartzeko ahalmenak bete ditzan.

5. LIZITAZIOAREN AURREKONTUA

Udalak eskatzen duen unitate bakoitzari prezioa jarriko zaio eta gutziaren eskaintza kontutan hartuko da:

- .-Oinarrizko proiektua
 - .-Exekuzio proiektua
 - .-Instalazioen proiektua
 - .-Arkitektoaren obra zuzendaritza
 - .-Aparejadorearen exekuzio zuzendaritza
 - .-Instalazioen legalizazio eta obra amaiera
 - .-Osasun eta segurtasun koordinazioa

6. AURREKONTU KREDITUA EGOTEA

Badago aurrekontu-kreditu nahikorik kontrataziotik jaiotzen diren betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko, eta horretarako 2016eko aurrekontuari kreditu aldaketa espedieneta egin behar zaio, 2015eko remanentearen gain.



ABALTZISKETA

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Proiektuaren erredakzio honetan ez dira prezioak berrikusiko.

8. KONTRATUA BETETZEKO EPEA

Kontratuaren iraunaldia ezingo da orain zehaztu . Halere oinarrizko proiektua , hitzarmena sinatu eta hilabete epean egin beharko da . Beste dokumentuak , hainbat erakundeen laguntzaren araberrako epea ezarriko zaie .

II. KONTRATUA ESLEITZEA

9. ESLEITZEKO PROZESUA ETA MODUA

9.1. Kontratua esleituko da prozedura mugatua erabilita, SPKLTBko 162.etik 168.era bitarteko artikuluetan xedatzen denari jarraituta. Azkenik esleituko da klausula honen 10.2. atalean adierazi diren balioztatze-irizpideak kontuan hartuta.

9.2. Hona hemen, proposamenak aurkeztuta lizitazioan parte hartzeko aukera izan duten interesdunen artean, kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak, garrantzitsuenetik hasita beheranzko hurrenkeran, balioespen honi jarraituta:

IRIZPIDEAK HAZTATZEA

Irizpide ekonomikoa

10. BEHIN BEHINEKO BERMEA

SPKLTBko 103. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, lizitatzailleek ez dute behin-behineko bermerik eratu behar.

11. PARTE HARTZEKO ESKABIDEEN EDUKIA

11.1. Parte-hartzeko eskaerek bi gutun-azal itxi izango dituzte; kanpoaldean adieraziko da zein prozesutan parte-hartzen den, interesdunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena, telefono eta fax zenbakiak, eta helbide elektroniko bat, halakorik badu, bai eta interesdunaren edo ordezkariaren sinadura ere. Jarraian zehazten da zein agiri eraman behar duten gutun-azalek.



ABALTZISKETA

11.2. Bat zenbakidun gutun-azala. Izenburu honekin: "1. GUTUN AZALA: Eskabide orrian agertzen diren datuak aurkeztu behar dira .

12. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio-mahaia kide hauek osatuko dute. Alkatea , hirigintzako bi zinegotzi eta idazkariak .

13. KONTRATUGILEARI ORDAINTZEA

13.1. Kontratuaren prezioa lana jaso eta hilabeteko epean ordainduko da , edo gainbegiratzen duen funtzionarioak, edo, hala denean, lanen zuzendariak aldeko txostena igorri edo oniritzia eman ondoren. Beti ere , kontratuaren xedean esaten den bezala , proiektuak Jaurlaritza eta Aldundiako Laguntza jasotzen badu . halere , oinarrizko proiektuaren gastua derrigorrezkoa da egitea laguntza eskatu ahal izateko.

14. KONTRATUA ETETEA

Administrazioak kontratua etetea erabakitzen badu, edo etetea gertatzen bada, izan SPKLTBko 216.5. artikuluan xedatutakoa, izan agiri honen 22.2. klausulan agindutakoa aplikatzeagatik, akta bat egingo da, non eteteko arrazoiak eta kontratuaren betepenaren izatezko egoera zein den azalduko baita.

Etetea erabakita, administrazioak kontratugileari benetan pairatu dituen kalte-galerak ordainduko dizkio; kalkulatzeko, SPKLTBko 300. artikuluen 2. eta 3. idatz-zatietan agindutakoa aplikatuko da.

VII. KONTRATUA AMAITZEA

15. KONTRATUA BETETZEA

Kontratua betetzat joko da kontratugileak xedea osorik egin duenean, bai agiri honetan, bai preskripzio teknikoan agirian xedatu denari jarraituta,

16. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA



ABALTZISKETA

Betetzen denean ez ezik, kontratua suntsiarazpenaren ondorioz ere azkenduko da. Suntsiarazpena erabakiko da SPKLTBeko 223. eta 308. artikuluetan aurrez ikusi diren arrazoietatik baten bat ematen denean, eta 224. eta 309. artikuluetan aurrez ikusi diren ondoreak sortuko ditu.

17. AUZIBIDEA

Kontratuaren interpretazioaren, aldaketaren, suntsiarazpenaren eta suntsiarazpenaren ondoreen inguruan sortzen diren gatazkak kontratazio-organoak ebatziko ditu; erabakiek administrazio-bidea amaituko dute eta berehala betetzeko modukoak izango dira. Hori bai, aurka egin dakieke, aukerabidez, berraztertze-errekurtsoa jarrita erabakia eman zuen organo berari, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren bidez, auzibide hura arautzen duen legeak agintzen duenarekin bat etorritik.

I. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Izena eta abizenak :

Helbidea:

N.AN.

Elkargo ofizialeko inskizioaren zenbakia :

Eskaintza ekonomikoa :

- .-Oinarrizko proiektua
- .-Exekuzio proiektua
- .-Instalazioen proiektua
- .-Arkitektoaren obra zuzendaritza
- .-Aparejadorearen exekuzio zuzendaritza
- .-Instalazioen legalizazio eta obra amaiera
- .-Osasun eta segurtasun koordinazioa

Lekua, data eta lizitatzaillearen sinadura.



ABALTZISKETA

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

- 1.- Ñañarri eraikinaren eraberritze eta egokitze lanen erredakzio egiteko lizitazioa arautuko duen baldintza plegua onartzea .
- 2.-Baldintza plegua tramitatzeko alkatea baimentzea .

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen Alkateak, 21:45etan.

Alkatearen O.E.

Idazkariak